

En el Salón de actos de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Auritz-Burguete siendo las 14,00 horas del día 7 de abril de 2.016, se reunió la Junta de la Agrupación de Ayuntamientos para servirse de una sola Secretaria de Burguete, Erro y Roncesvalles al objeto de celebrar Sesión ordinaria , en primera convocatoria, con la asistencia del Sr. Alcalde de Erroibar-Valle de Erro, D. Enrique Garralda Erro y el Sr. Alcalde de Orreaga Roncesvalles D. Luis Echeverría Echavarren, bajo la presidencia del Sr. Alcalde de Auritz- Burguete D. Luis De Potestad Tellechea asistiendo como secretaria de la corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 6 DE OCTUBRE DE 2015.

La Junta aprueba por unanimidad el acta de la sesión de 6 de octubre de 2015

2.- RATIFICACIÓN DE RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA DE 7 DE OCTUBRE DE 2015 A 31 DE MARZO DE 2016

Informa el Sr. Presidente del contenido de las resoluciones de presidencia desde 7 de octubre de 2015 hasta el 31 de marzo de 2016 y que obran en el expediente de la sesión La Junta se da por enterada.

3.- APROBACIÓN INICIAL EXPEDIENTE DE CUENTAS 2015

Actúa la Junta en funciones de Comisión Especial de Cuentas

Se entrega y se explica por parte de la Secretaria la documentación que se remite del Cierre de Cuentas. A la vista del mismo se realizan las siguientes consideraciones, en cuanto al remanente de tesorería ya que el mismo asciende a 24.362,17 €, hay que ver de donde sale y revisar el criterio de reparto que se debería llevar a cabo en base a la liquidación ya que la existencia de remanente permite que los Ayuntamientos en la elaboración de sus respectivos presupuestos puedan reducir la partida destinada a su mantenimiento.

Visto el expediente del Cierre de Cuentas de 2.015, la Junta de la Agrupación de Ayuntamientos para servirse de un solo Secretario de Burguete, Erro y Roncesvalles, examinada su documentación, acuerda por unanimidad:

- 1.-Aprobar la “Cuenta General” formada por la Intervención.
- 2.-Aprobar el “Informe de la Comisión Especial de Cuentas” y exponerlo al público en el tablón de anuncios el acuerdo por 15 días hábiles de conformidad con el artículo 242.3 de la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra

4.- APROBACION INICIAL PRESUPUESTOS 2.016

La Junta aprueba por unanimidad el presupuesto para 2.016 nivelado en la cantidad de 69.409,00 euros.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 276 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, el presupuesto aprobado se expondrá en Secretaría durante quince días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de

este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

5.- APROBACIÓN DEFINITIVA PLANTILLA ORGÁNICA 2016

La Junta aprueba por unanimidad de forma inicial la plantilla orgánica para 2.016 que obra en el expediente de la sesión.

Servicios agrupados de los Ayuntamientos de Orreaga-Roncesvalles, Auritz/Burguete y Valle de Erro.

Denominación del cargo: Secretario. Número de plazas: 1. Forma de la provisión: Concurso-oposición. Nivel A. Complementos puesto de trabajo: 40%, Incompatibilidad 35% Jornada Completa.

Relación nominal de personal contratado en régimen administrativo

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Secretaria interina. Situación: Activo. Antigüedad 11/06/2012

6.- CALENDARIO LABORAL Y PROPUESTA DEL CARGO DEL SISTEMA DE CONTROL DE PRESENCIAS A LA AGRUPACION DE SERVICIOS ADMINISTRATIVOS

Toma la palabra el presidente Sr. De Potestad que en relación con el calendario laboral y el poder ir cumpliendo con a la Orden Foral 257/2011 de 10 de marzo sobre instrucciones para la implantación progresiva de medidas de flexibilización de la vida laboral, personal y familiar, presenta para su aprobación al coincidir el personal, el mismo calendario que el acordado por el Ayuntamiento de Auritz/Burguete para sus trabajadores, proponiendo a su vez la instalación del control de presencias, así como que la Agrupación participe en el porcentaje que le corresponda en sufragar su coste que asciende a 967€ más IVA.

Toma la palabra el alcalde del Valle de Erro, Sr. Garralda, que considera innecesario la colocación del mencionado control de presencias, tanto por el tamaño de la plantilla como por las características del puesto, en este caso de la secretaria que tiene que estar de un Ayuntamiento a otro, manifestando que en su Ayuntamiento, con las particularidades que tiene, al ser un municipio compuesto por 9 concejos gestionados todos ellos a través del Ayuntamiento, Sorogain, Quinto Real, no sería posible, especialmente respecto a los puestos de alguacil y secretaría, los cuales en numerosas ocasiones se tiene que desplazar de un lado a otro. Por otro lado, muestra su rechazo ya que parece que se trata de una desconfianza hacia los trabajadores, sobre todo cuando él lleva catorce años en el Ayuntamiento y en ese sentido nunca ha tenido ningún problemas con los mismos.

El presidente Sr. De Potestad, señala que todo lo contrario, que no es un tema de desconfianza, sino de favorecer a los trabajadores ya que les permite flexibilizar su horario y no tener que dar explicaciones cada vez que necesitan tomarse un tiempo. Contestando el Sr. Garralda que eso ya se está haciendo, sin necesidad de dicho aparato. El presidente Sr. De Potestad, invita a alcalde del Valle de Erro Sr. Garralda que vaya a cualquier sindicato para que pregunte y vea que su propuesta es totalmente legal y beneficiosa para los trabajadores. El alcalde del Ayuntamiento de Roncesvalles, si bien

está de acuerdo con lo manifestado por el Alcalde Sr. Garralda, señala que no él pero en Pamplona su empresa Intia tiene instalado el control de presencias y no hay problemas. Toma la palabra la Secretaria que manifiesta que si bien no tiene inconveniente en la instalación del aparato mencionado, si solicita que dadas las características de su puesto se le deje expresamente claro como va a tener que llevar a cabo dicho control.

Tras un largo debate, donde incluso, al no tener claro por algunos de los asistentes la conveniencia de aprobar la instalación del mencionado aparato, se propone posponer el tomar acuerdo alguno sobre dicho asunto a una próxima sesión, se da paso a la votación con el resultado siguiente: Un voto a favor del Presidente Sr. De Portestad, un voto en contra del Alcalde del Valle de Erro, Sr. Garralda y una abstención del alcalde del Ayuntamiento de Roncesvalles Sr. Echeverría.

A la vista de lo cual y haciendo uso del voto de calidad del Presidente Sr. De Potestad, se acuerda:

1º.- Aprobar el siguiente calendario laboral propuesto por el Sr. De Potestad.

1.- Se establece un cómputo global de horas por trabajador de 1592, desarrolladas en el siguiente horario de oficina: La jornada diaria de trabajo de lunes a viernes tendrá, con carácter general, una duración de 7 horas y 20 minutos. El horario de oficina se desarrollará de la siguiente manera:

- La parte fija del horario, que será de presencia obligatoria en el puesto de trabajo para el personal y que estará comprendida entre las 9:00h y las 14:30 horas, de lunes a viernes.

El tiempo restante hasta completar la jornada diaria, que asciende a dos horas, se realizará, a elección del empleado y con carácter flexible, entre las 7:30 y las 9:00 horas y entre las 14:30 y las 17:00 horas. El control de asistencia se realizará mediante un sistema automático de control de presencias, estando obligados todos los empleados a fichar al entrar y al salir del centro de trabajo. Esta obligación incluye tanto el inicio y el final de cada jornada, como las salidas y retornos que se realicen durante la misma.

-Durante la jornada de trabajo el personal podrá disfrutar de una pausa de treinta minutos de duración como máximo. Esta interrupción no podrá afectar a la prestación de los servicios y, con carácter general, podrá realizarse entre las 10:00 y las 13:00 horas.

2.- Horas extras: Serán compensadas por tiempo de descanso. Con carácter continuo, cada empleado podrá tener un saldo positivo o negativo de hasta 10 horas respecto de la jornada diaria de 7 horas y 20 minutos. Este saldo se actualizará diariamente en el sistema de control de presencias.

El tiempo que exceda del citado saldo positivo de 10 horas no se computará a ningún efecto en el sistema ni será objeto de compensación alguna.

El tiempo que exceda del saldo negativo de 10 horas conllevará el descuento automático en nómina de las retribuciones correspondientes.

3.- Calendario de días festivos, de carácter retribuido y no recuperable:

Enero: 1 y 6

Marzo: 24, 25 y 28

Junio: 24

Julio: 25

Agosto: 15

Octubre: 12

Noviembre: 1

Diciembre: 3, 5, 6, 8, 26

4.- *Vacaciones, Licencias, Permisos y Reducciones de Jornada. Se estará a lo dispuesto en la normativa aplicable para el personal de las administraciones públicas.*

5.- *Publicar el calendario en el BON y el tablón de anuncios del Ayuntamiento.*

2º.- Aprobar la instalación del control de presencias y el coste.

3º.- Asumir el coste proporcional de dicha instalación.

7.- PROPUESTA CONVOCATORIA SESIONES

Se acuerda por unanimidad celebrar mínimo dos sesiones anuales, siendo la hora de inicio a las 14,00 h. en la sala de sesiones del Ayuntamiento de Auritz/Burguete.

8.- REVISION GASTOS KM

En relación con los gastos por kilometraje que presenta la Secretaria por servicios realizados para el Ayuntamiento a destinos diferentes de su lugar de trabajo, toma la palabra el alcalde del Valle de Erro Sr. Garralda que manifiesta su conformidad con los mismos, como así lo han hecho siempre, siendo ratificado por el alcalde del Ayuntamiento de Roncesvalles Sr. Echeverría. Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que muestra sus dudas sobre si los gastos que se presentan se encuentran dentro del concepto de indemnización por razón de servicio, considerando que no corresponden a dicho concepto y estando por tanto en contra de su pago.

Toma la palabra la Secretaria, que el kilometraje que pasa, corresponde al desplazamiento que realiza para trabajos del Ayuntamiento fuera de su destino de trabajo, algunos de ellos directamente relacionados con sus funciones y otros, como puede ser la entrega de documentación en registro, por cuestión de practicidad ya que aún supondría un mayor coste para el Ayuntamiento si tuvieran que ser realizados por el Empleado de Servicios Múltiples, entendiéndose que legalmente le corresponde.

Debatido el asunto se acuerda con dos votos a favor (Srs. Garralda y Echeverría) y un voto en contra (Sr. De Potestad) abonar los gastos por kilometraje que presenta la Secretaria.

Toma la palabra el Sr. De Potestad, que manifiesta que en caso de que no sea así reclamará que se devuelva lo pagado por el mencionado concepto durante los últimos cuatro años.

9º.- SOLICITUD DEL AYUNTAMIENTO DE AURITZ/BURGUETE SOBRE REQUERIMIENTO INGRESOS INDEBIDOS HORAS EXTRAS SECRETARIO

Toma la palabra el Presidente Sr. De Potestad, que informa respecto al acuerdo adoptado por el Ayuntamiento de Auritz/Burguete sobre reclamación de cantidad por ingreso indebido de horas extras del Secretario, que en el año 2012 solicitó al Ayuntamiento una documentación sobre dicho pago y en base a la misma, se puso en

contacto con un despacho de abogados, Benac Abogados S.L.P. para que le hiciera un informe sobre la legalidad o no del mencionado ingreso. El informe concluye que el abono realizado por la Agrupación puede considerarse como no conforme a derecho y por ello, el Ayuntamiento de Auritz/Burguete no siendo competente por si mismo, adopta el acuerdo de requerir a la Agrupación que sea dicha Entidad quien reclame el mencionado cobro indebido por parte del Secretario.

Toma la palabra el alcalde del Ayuntamiento del Valle de Erro, Sr. Garralda que manifiesta que esas horas se pagaron con conocimiento y conformidad de los tres alcaldes que en ese momento formaban parte de la Agrupación y por tanto por su parte no puede retractarse de algo que se hizo con su visto bueno. Por otro lado muestra su malestar ya que entiende que un tema que afecta a la Agrupación lo debería haber hablado en primer lugar con ellos. Así mismo, quiere que se solicite al letrado de la Agrupación Sr. Nagore un informe sobre este asunto. Propuesta que se ratifica por el alcalde del Ayuntamiento de Roncesvalles Sr. Echeverría, estando ambos de acuerdo en pedir dicho informe, añadiendo respecto a las horas que efectivamente así fue e incluso cree recordar que parte de esas horas se llevaron a cabo en el archivo de su Ayuntamiento en la Colegiata.

El presidente Sr. De Potestad, señala por un lado, que el informe ya está hecho y que si hay que pedir otro informe no sea a nadie que esté vinculado con la Agrupación, por otro, que en su documentación no ha visto ningún documento de autorización de las horas extras objeto de la reclamación, y por último, entiende que su Ayuntamiento adopta los acuerdos que considera oportunos y él como alcalde no tiene nada que decir.

Toma la palabra la Secretaria, que sin haber analizado a fondo este asunto porque se trata de un tema anterior a su llegada al cargo, ha visto que hay unas resoluciones sobre este tema, en concreto una, que autoriza las mencionadas horas. El Sr. De Potestad, manifiesta que no tiene conocimiento de la resolución que se menciona y solicita copia de la misma, de la cual se le hace entrega.

Tras el debate, se da paso a la votación con el resultado siguiente, un voto a favor (Sr. De Potestad) y dos en contra (Srs. Echeverría y Garralda) de reclamar en base al acuerdo del Ayuntamiento de Auritz/Burguete, el cobro que por horas extraordinarias ingresó el Secretario Sr. Cenoz.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.

Y sin más asuntos que tratar, siendo las 16,15h. se levanta la sesión de lo que doy fe.

Aurizko udaletxeko ekitaldi aretoan, 2016ko apirilaren 7ko 14:00etan, idazkari batez baliatzeko Auritz, Erroibar eta Orreagako Udaletako Batasuneko Batzordea bildu zen bilkura arrunta egiteko, lehen deialdian. Bertaratuak: Erroibarko alkatea, Enrique

Garralda Erro, eta Orreagako alkatea, Luis Echeverría Echavarren, bilkuraburu Aurizko alkatea, Luis de Potestad Tellechea jn. izan zen, eta idazkaria Marisol Ezcurra Irure.

1.- 2015EKO URRIAREN 6AN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Batzordeak erabaki du aho batez 2015eko urriaren 6ko bilkuraren akta onartzea.

2.- BATASUNBURUAK 2015EKO URRIAREN 7TIK 2016KO MARTXOAREN 31 ARTE EMAN DITUEN EBAZPENAK BERRESTEA.

Batasun buruak 2015eko urriaren 7tik 2016ko martxoaren 31 arte eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du; horiek guztiak bilkuraren espedientean daude. Batzordea jakitun gelditu da.

3.- HASIERA BATEZ ONESTEA 2015. URTEKO EKITALDIAREN KONTUEN ESPEDIENTEA.

Batzordea Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Kontuhartzaileak Kontuen Hertsieraren inguruko dokumentazioa aurkeztu eta azaldu du. Horiek ikusita, honako oharpenak egin dira diruzaintzaren gordekinari dagokionez, 24.362,17 € baitaude eta dirua nondik aterako den eta banaketa egiteko irizpidea berrikusi beharko baizen, soberakina egonez gero, Udalek bere aurrekontuak onartzean batasunari dagokion saila murriztu ahal dutelako.

2015eko Kontuen Hertsiketaren espedientea ikusita, idazkari batez baliatzeko Auritz, Erroibar eta Orreagako Udaletako Batasuneko Batzordeak, dokumentazioa aztertu ondoren, erabaki du aho batez:

- 1.- Kontuhartzaileak egindako "Kontu Orokorra" onartzea
- 2.- "Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena" onartzea eta jendaurrean paratzea iragarki oholean 15 egun baliaduneko epean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikulua dioenarekin bat eginez.

4.- 2016ko AURREKONTUEN HASIERAKO ONESPENA

Batzordeak erabaki du aho batez 2016ko aurrekontua onartzea, 69.409,00 eurotan nibelatua.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 X Legearen 276. artikulua dioena betetzeko, onartu den aurrekontua idazkaritzan egonen da ikusgai iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik hasita hamabost lan eguneko epean, bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

5.- 2016KO PLANTILLA ORGANIKOA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Batzordeak erabaki du aho batez 2016ko plantilla organikoa onartzea hasiera batean, hori bilkuraren espedientean dago.

Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udaletako zerbitzu bateratuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:
Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria. Egoera: Jardunean. Antzintasuna
2012/06/11

6.- LAN EGUTEGIA ETA PRESENTZIEN KONTROLERAKO SISTEMA ZERBITZU ADMINISTRATIBOEN BATASUNAREN KARGURA EGITEKO PROPOSAMENA

Batasun buruak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta esan du lan egutegiari dagokionez eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lan ordutegia apurka malgutzeko neurriak ezartzeko jarraibideak onesten dituen 257/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 10ekoa, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak emana, bete ahal izateko, Aurizko Udalak bere langileentzako onetsitako lan egutegi berbera aurkezten du, onesteko, eta aldi berean presentzien kontrolerako sistema jartzea proposatu du, bai eta Batasunak horren kostuan parte hartzea ere, 967 € + BEZ delarik.

Erroibarko alkateak, Garralda jnk., hitza hartu du eta esan du ez duela uste presentzien kontrola jartzea beharrezkoa denik, alde batetik plantillako langile kopurua baxua delako eta bestetik lanpostuaren ezaugarriengatik, kasu honetan idazkaria, udal batetik bestera joan behar baitu, eta gainera bere Udalaren ezaugarriak direla kausa, udalerrian 9 kontzeju daudelako eta Udalak horiek guztiak kudeatzen dituenek, gehi Sorogain eta Kinto, ez litzatekeela bidezkoa izanen, gehienbat algoazila eta idazkariaren kasuan, anitzetan mugitu behar dutelako. Beste aldetik dio ez dagoela ados, langileekiko konfiantza falta dirudielako, gehienbat berak hamalau urte daramanean Udalean eta ez duenean inoiz arazorik izan langileekin.

Presidenteak, de Potestad jnk., dio alderantziz, ez dela konfiantza falta, baizik eta langileei erraztasunak ematea bere lan ordutegia malgutzeko eta denbora tarte bat hartu behar dutenean azalpenak eman behar ez izateko. Garralda jnk, dio hori egiten ari dela, aparailurik jarri gabe. Presidenteak, de Potestad jnk. , gonbidatu du Garralda jn. edozein sindikatura joatera, galdetzeko, eta ikusiko duela bere proposamena guztiz legezkoa dela eta langileentzako onuragarria. Orreagako alkateak, Garralda jn. esandakoarekin ados baldin badago ere, esan du berak lan egiten duen enpresak, Intiak, baduela Iruñean horrelako aparailua jarria eta ez dagoela arazorik.

Idazkariak hitza hartu du eta esan du, nahiz eta arazorik ez izan aparailua jartzearekin, eskatzen du, bere lanpostuaren ezaugarriak direla eta, argi uztea nola egin behar duen kontrola eramateko.

Luze eztabaidatu ondoren eta aparailua jartzea komenigarria den argi ez badago ere, gaia hurrengo bilkurarako uztea proposatu da, baina hala ere bozkatu egin da eta emaitza hau izan da: Batasun buruaren aldeko boto bat, de Potestad jn., bat aurka. Erroibarko alkatearena, Garralda jn., eta abstentzio bat, Orreagako Udalaren alkatearena, Echeverria jn.

Horiek horrela eta presidentearen , de Potestad jn., kalitatezko botoa erabilita, erabaki da:

1go.- De Potestad jnk. proposatu duen lan egutegia hau onartzea:

1.- Egutegiari dagokionez langile bakoitzak urtean 1592 ordu lan egin behar ditu, honela antolatuta: Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da Bulego ordutegia honela banatuko da:

- Langile guztiek egon beharko dute, ezinbestean, lanpostuan, 9:00etatik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

Lanaldi osoa betetzeko gainontzeko orduak, bi, 7:30etatik 9:00etara eta 14:30etik 17:00etara egingo dira. Bertaratze kontrola presentziak kontrolatzeko sistema automatiko baten bidez egingen da, eta langile guztiek lanera sartzen zein ateratzean fitxatu behar dute. Derrigorrezkoa izango da lanaldiaren hasieran zein bukaeran fitxatzea bai eta lanaldiaren bitartean egiten diren irteera-sarrera guztietan.

-Lanaldiaren bitartean langileek gehienez ere hogeita hamar minutuko atsedenaldea egin ahalko dute. Atsedenaldiak ez du zerbitzuengan eraginik ezan behar eta 10:00etatik 13:00etara egingo da.

2.- Aparteko orduak. Atsedeen orduen bidez konpentsatuko dira. Langile bakoitzak gehienez ere 10 orduko saldo positibo edo negatiboa izan ahalko du eguneko 7 ordu eta 20 minutuko lanaldiarekiko. Saldoa egunero eguneratuko da presentzien kontrol sistemaren bidez.

10 orduko saldo positibotik gorako denbora ez da inola ere ez sisteman kontuan hartuko ezta beste era batera konpentsatuko.

10 orduko saldo negatibotik gorako denbora lansariaren jaitziera ekarriko du.

Ordaindu bai baino errekeratu behar ez diren festa egunen egutegia:

Urtarrila: 1a eta 6a

Martxoa: 24a, 25a eta 28a

Ekaina: 24

Uztaila: 25

Abuztua: 15

Urria: 12

Azaroan: 1

Abendua: 3, 5, 6, 8, 26

4.- Oporrak, Baimenak eta Lanaldien murrizketak. Administrazio publikoetako langileekiko aplikagarria den arautegiari jarraituko zaio.

5.- Egutegia NAOean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea.

2.- Presentzien kontrolerako gailua eta haren kostua onartzea.

3.- Instalazio horren kostua, proportzionalki dagokiona, onartzea.

7.- BILKURAK EGITEKO PROPOSAMENA

Aho batez erabaki da urtean gutxienez bi bilkura egitea, Aurizko udaletxean, 14:00etan.

8.- KILOMETRAJE GASTUAK BERRIKUSTEA

Idazkariak udalantzako hainbat zerbitzu egiteko bere lanpostutik beste lekuetara joateko aurkeztu dituen kilometraje gastuei dagokionez, Erroibarko alkateak, Garralda jnk. dio ados dagoela gastu horiekin, beti egin den moduan eta Orreagako alkatea, Echeverria jnk. gauza bera dio. Batasun buruak, de Potestad jnk., hitza hartu du esanez zalantzak dituela aurkeztutako gastuak zerbitzu arrazoiengatik eman beharreko ordainen

kontzeptuan sartzen diren, eta uste duela ez dela horrela eta ordaintzearen aurka dagoela dio.

Idazkariak hitza hartu du eta esan du kilometrajea bere lanpostutik kanpoko lekuetara joateko dela, lan horietako batzuk bere eginkizunekin zerikusia dutela eta beste batzuk, adibidez dokumentazioa erregistrora eramatea, praktikotasunari begira egiten dituela, zerbitzu anitzetako langileak egin beharko balitu gastua handiagoa izango litzatekeelako, eta uste duela legalki badagokiola.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aldeko bi botoz (Garralda eta Echeverria) eta aurkako boto batez (de Potestad) idazkariak aurkeztu dituen kilometraje gastuak ordaintzea.

De Potestad jnk. Hitza hartu du eta esan du legezkoa ez balitz kilometrajearengatik azkeneko lau urtetan kobratu dena itzultzea eskatuko duela.

9.- AURIZKO UDALAK IDAZKARIARI ORDAINDU BEHAR EZ ZITZAIZION APARTEKO ORDUEN GAINEAN AURKEZTU DUEN ESKAERA

Batasun buruak de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du Luzaideko Udalak eskatu duela idazkariari ordaindu behar ez zitzaizkion aparteko orduak erreklamatzeko, 2012an eskatu ziola Udalarari ordainketa horien gaineko dokumentazioa eta hori ikusita, abokatu batzuekin mintzatu zela, Benac Abogados SLP, hori legezkoa den ala ez jakiteko. Txostenean esaten da Batasunak ordaindu zuena legearekin bat ez datorrela kontsidera daitekeela eta, hortaz, Aurizko Udala ez duenez ahalmenik berak bakarrik horren aurka egiteko, adostu du Batasunari eskatzea berak erreklama dezala idazkariak gaizki kobratutakoa.

Erroibarko Udalaren alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du ordu horiek Batasunean zeuden hiru alkateek jakinda eta haien adostasunez kobratu zirela, eta, hortaz, bere aldetik ezin duela bere oniritziz egindako zerbaitekin atzera egin. Beste aldetik dio ezinegonaz sortu diola Batasunari eragiten dion gai bati buruz zergatik ez duen lehenengo beraiekin hitz egin. Modu berean eskatzen du Batasuneko letratuari, Nagore j., gaiari buruzko txostena egin desala esatea. Orreagako alkateak, Echeverria jnk., proposamenarekin ados dagoela dio, hortaz, biak txostena eskatzearekin ados daude, eta orduei dagokienez horrela izan zela dio eta uste duela ordu horietako batzuk Orreagako udaletxeko artxiboan egin zirela dio.

Batasunbururak, de Potestad jnk., esan du, alde batetik, txostena egin dagoela eta beste bat eskatu behar bada ez dadila izan Batasunarekin zerikusia duen edonor, eta, bestetik, berak ez duela dokumentazioaren artean erreklamazioaren xede diren aparteko orduen baimenik ikusi, eta, azkenik, uste du bere Udalak egokiak deritzon erabakiak hartzen dituela eta berak, alkate gisa, ezin duela horretaz deus esan.

Idazkariak hitza hartu du eta gaia sakondu ez duela dio bera karguaz jabetu aurretiko gaia baita, eta gaiari buruzko ebazpenak ikusi dituela dio, bat zehazki, ordu horiek baimenduz. De Potestad jnk., dio ez duela ebazpen hori ikusi eta haren kopia eskatu du eta eman zaio.

Eztabaidatu ondoren bozkatu da eta emaitzak hauek dira: lehengo idazkariak, Cenoz jk., kobratu zituen aparteko orduak erreklamatzeari buruz Aurizko Udalak hartu duen erabakiaren aldeko boto bat (De Potestad jn.) eta aurkako bi (Echeverria eta Garralda).

10. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dago.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 16,15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.